

Hasi da sagardo denboraldia



Sagardotegi-denboraldia hasi zaigu Zerairen ere. Urtarrilaren 12an, ireki zituen ateak eta kupelak Oihartek, eta hurrengo astean, urtarrilaren 18an Otatzak. Bietan giro bikaina egon zen trikitilariak lagunduta, eta Oiharten Txapi, Maiz eta Igartzabal bertsolari gazteak ere aritu ziren. Behin denboraldia estreinatuta, badaukagu non gozatua sagardoa edanez eta jaki goxoak janez! Txotx!!!



Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordenantza fiskala

IBI edo Ondasun Higieziari buruzko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean iaz Udalak onartutako aldaketak tarteko, familia ugaria direnek deskontua izango dute zerga honetan. Zehatzago esateko, eta arauak dioena kontuan hartuz, "kuota osoaren %50eko hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean eta egoera hori frogatzen duten bitartean".

Baldintzak bete eta deskontua eskatu nahi dutenek otsailaren amaiera arteko epea izango dute. Horretarako, ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da udaletxean: ohiko etxebizitzaren errolda-ziurtagiria; eskatzaileak dituen etxebizitza guztien balio katastrala 150.000 euro baino gutxiago; O.H.Z. ordainagiriaren kopiak; eta familia ugariaren ziurtagiria. Informazio gehiago nahi duenak udaletxera jo dezake.

Hezeguneei buruzko hitzaldia eta bisita gidatua

Azken bi urte hauetan zehar, Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika eta Herpetologia saileko kideek Zeraingo Lasurtegi inguruan dauden hezeguneei ikerketa egin dute. Horren berri emateko hitzaldia emango dute Aranzadiko Ion Garin-Barriok eta Yoana Garciak urtarrilaren 31n, osteguna, 19:30ean Zeraingo Kultur Etxean. Ikerketaren emaitzak argitara emateaz gain, etorkizunera begira gauzatu beharko liratekeen berreskurapen ekintza eta ikerketa-lan berriak aurkeztuko dira.

Otsailaren 2an, larunbatean, berriz, bisita-gidatua egingo da Lasurtegi hezeguneetara Zeraingo plazatik abituta, 10:00etan.



Giro ederrean ospatu ditugu Eguberri jaiak



Eguberri jaiak giro onean joan ziren herrian. Gabon egunean, etxez etxe kantuan ibili ziren kultur elkarteko eta katekesiko, eta eskolako taldeek jarri zuten alaitasuna. Talde handiak guztira 1936 euro bildu zituen; erdia kultur etxerako izango da eta beste erdia Caritasentzat. Eskolako taldeak 1200 euro inguru bildu zituen eta diru hori eskolako beharretarako, igeriketa ikastaroa egiteko eta El Salvadorgo San Diegitoko eskolari laguntzeko erabiliko da. Eskerrik asko herritar guztioi. Gabon iluntzean, berriz, Olentzero jaitsi zen plaza- ra, urteroko moduan opariak eta gaz- taina erreak hartuta. Herri-giro pare- gabean, haurrek eta koruak bikain abestu zioten Olentzerori.



Ekonomia solidarioari eta nekazaritza iraunko- rrari buruzko jardunaldia urtarrilaren 25ean

Etxalde, Euskal Herriko nekazari eta laborarien mugimenduak bi eguneko jardunaldia antolatu du Usurbilen eta Zerainen ekonomia solidarioaz eta nekazaritza iraunkorraz sakontzeko.

Lehen egunean, urtarrilaren 24an, Usurbilen izango da topaketa eta egun guztian zehar Euskal Herriko nahiz nazioarteko zenbat adituren esanak eta hainbat laborariren espe- rientziak entzuteko aukera egongo da. Arratsaldean, berriz, tailer bat- zuetan parte hartu ahal izango dute gerturatzen direnek.

Hurrengo egunean, urtarrilaren 25ean, helduko da topaketa Zeraina. Goizeko lehen partean, bezperako tailerretan ateratako ondorioak lan-



duko dituzte. Ondoren, Zeraingo herriaren landa-garapen (ekonomi- koa, soziala eta kulturala) proiektua aurkeztuko da. Eta jardunaldia amaitzeko bazkaria egingo dute Zerainen bertan.

Su-hermandadearen oharra herritarrei

Su-hermandadeko juntak 2012ko abenduan egindako azken bileran hartutako erabakien arabera, Estatutu berriak idatzi dira. Estatutu hauek dira aurrerantzean baliokoak eta baz- kide guztiek sinatu behar dituzte, bazkideen zerrenda eguneratzeko. Istripua gertatzen denean dokumen- tua sinatu gabe badu titularrak, honek ez du kalteordaina jasotzeko eskubiderik izango.

Estatutuen dokumentua sinatzeko udaletxean egongo da otsailaren 8a bitartean. Goizeko 09:30etatik 14:30etara bitartean pasa daiteke ber- tatik (ezin bada ordu horretan deitu udaletxera). Eraikinaren titularrak ezin badu etorri sinatzera, beste pert- sona bat ahalmenu beharko du idat- ziz, honek sinatu dezan bere orde- z.



Txaldan

Hil honetako hitza "txaldan" izatea proposatu dit Arantzazu Muñoz. OEHn begiratu du, eta hauxe agertu zaio: "gatz gabea", gaztelaniaz "simple, fatuo, sin fuste". Beste esplikazio hauek ere OEHTik jaso ditugu, eta Arantzazuk esandakoaren bide beretik doaz gehienak: "memo, lelo, persona insustancial; cobarde". Azkuek "chochola, sin sustancia" dio. Oñatiko eta Arantzazuko berri eman ohi zuen Kandido Izagirrek, berriz, "insustancial" eman izan du "txaldan" hitzarentzat. Ipar Euskal herriko hizte-gigileak, azkenik, "insipide, stupide, sans caractère ni énergie, sot, niais" sein-alatu izan du. Ez da, ordea, bertan erabilitako hitza.

Bat datoz definizio horiek, Zerainen jasotako erabilerarekin. Liburuetan gordetako adiera hori izanik ere, besterik ari da kalean gertatzen: galtzen ari da *txaldan* hitza. Termometro egokia erabili du Arantzazuk Zerainen, galera horren nondik norakoa antzemateko: "Nik neronek hitza ez nuen ezagutzen (aitak bai), baina hitza soziedadean dagoen kutxan Maitena Alustizak proposatu zuen eta bertan zioen bere aitona (Joxe Mari Alustizak) erabiltzen omen zuela". Garbi dago beraz: Maitenaren aitona ezagutu eta erabili egiten zuen *txaldan* hitza, Xantik ezagutu egiten du eta gazteek (Maitenak eta Arantzazuk) ez dakite zer den.

Adibide ugari jaso du OEHTk, hitz hori nork eta nola erabili izan duen azaltzeko. Bizkaian eta Gipuzkoako dot-esparruan ageri dira hitz horren aipamen ugariak. Bada probintzian, horrezaz gainera, aipamen landurik ere. Nafarroaldean ere bada hitz horren testigantzarik, inoiz edo behin. Iparraldean, berriz, hiztegian bakarrik ageri da jasorik. Hona hegoaldeko zenbait adibide, Mogelgandik hasita: "Zer esango dute nigatik? Txaldan gatz-gabe edo lelo bat naizala. Amodijua [...] aillagina biztu oi da nosbait, zein da azkortuten dau gizonik txaldaneena, senduaguentzat obato letorkezan gauzei esestera." Gipuzkoan ere jaso izan da halakorik, det-esparru garbian. Har dezagun, adibidez, Iztueta famatua: "Koldar txar, beldurri, txaldanaren izen lotsagarriarekin betiko geditzea".

Bizkaierazko idazleen artean izan du hitzak, esan bezala, idatzizko erabilera zabalena: Hor dago, adibidez, Otxoluren esaldia: "barregarri ixango litzake gixagaxo au, ta nik baño obeto dakixube alako lekubetan olako txaldanik gura ixaten eztabena".

Erabilera jasoagoa ere izana du hitzak. Maisu izana dugu Lizardi, orain dela laurogei bat urte, zabalkunde-lan horretan ere: "Nola diteke itsusi ta txaldan guk gereaa maite izatea?; Zere asmakunde txaldan orretan geren buruok parregarri eztitugu ikusiko. Askotan gertatu ohi denez, jakina, zabalkundea ez da arruntetik jasorakoa bakarrik izan. Hemen ere zabaldu egin da hitzaren aplikazio-esparrua, bere erabilera arrunta pertsonetatik gauzetara hedatuz. Hor dugu, batetik, Nemesio Etxanizen adibidea: "Nere esku txaldan auek! Leioa isten ari nintzala erori etzitzaidan ba!"

Adjektiboa da txaldan hori. Baditu ordea, maiz asko, aditza eta kontzeptu-izena eta lagun. Horrela, erabilera erraz eta probetxuzkoa da txaldandu aditza: "volverse insustancial, estúpido". Honela zioen Txomin Agirrek Garoa-n: "Axeri, oso txaldandua, moteldua, gazterik auldua [...] bearsuen gaixotegi batean illtzan". Erraz entenditzekoa da txaldankeria kontzeptu-izena ere: "memez, insustancialidad". Hona Mitxelenaren adibide bat: "Ez da eginbide atsegina [...] argitara diren txaldankeriak burutik burura irakurtzea".

Oso hitz bizia, freskoa, xumea eta naturala izana da *txaldan* hori: pertsona baten nortasun negatiboa azaltzeko erabili izan da menderik mende, hitzetik hortzera. Pulamentu handirik gabeko pertsona epela adierazi izan du *txaldan*-ek: gatz gabea, nahigabe eta estualdian ustekabekoei aurre egiteko adorerik gabea, erraz kikiltzen den pertsona. Alde horretatik, behar-beharrezko hitza genuen eta dugu: eguneroko hizkera natural, bizi, gatz-piperdunak oso eskuera zuen, eta du, sendotasun handirik gabeko pertsonak aipatu behar izatea. Eguneroko berritsuketa arruntan, aurrez aurrekoan, jendeak maiz ezpaineratzen du kontzeptu

hori. Hizkuntza biziaren eskakizuna baita, inguruko pertsonak -lagun eta etsai- zorrotz kalifikatzea. Horrek ematen dio gure jardunari gatz eta piper-ra. Horrek egiten gaitu hitzun bete, garbi eta eredugarri. Askotan uste izan dugu, "hamar duro"ko hitzen behar-rean zela euskara: sukalde-bazterrean edo taberna-zuloan ipuin-kontari, mar-marka edo asmakizun lotsagabeen jarduteko ongi horniturik ikusten genuen hizkuntza eta, aitzitik, goi-mailako jakintza-gaiak azaltzeko elementu lexikal eta estilistikoen gabezia nabarmena antzematen genion. Gabezia horri leporatu izan dizkiogu gure hizkuntza-egoeraren hainbat kulpa. Badakigu orain, damurik, oker genbiltzala hainbatean. Egia da jakintza-alorreko terminologia teknikoaz urri edo esku-hutsik geundela sarri. Ez da egia, ordea, hizkuntzaren gaitz asko (gogorrenak agian) gabezia horretatik zetozenik. Orain, sukalde-bazterrean eta tabernazokoa euskal mintzoaren oihartzun biza (eguneroko erabilera arrunta, xumea, gatz-piperduna) ahultzen hasi direlarik konturatzen gara gaitzaren muina non dagoen. Eguneroko hitzun garbiak, inguruko mintzalgunei erdaraz baino sarriago eta errazago euskaraz hitz egiten dietenak, urrituz doazkigu eta urritasun hori terminologiazko eskasia baino gaitz larriagoa da dudarik gabe. Besteak badu erremediorik: erremedio bila jardunak gara azken 40 urtean, eta hein batean lortzen ari gara falta-gabezia hura estaltzea. Aurrez aurreko hizkera freskoaren galera, aldiz, ez: atzera ari gara hor, damurik. Harritzekoa ere ez da: mila bider zailagoa da, eguneroko xehetasunak (tartean hau edo hori larrutzea) euskaraz adieraztea, erdal makuluen gabe, eta horrela euskarazko mintzajardun arrunta berriro etxera eta lagunartera ekartzea. Horregatik dira txaldan moduko hitzok hain garrantzitsu eta hain baliagarri.

Hurrengo batean TXATXAL hitzari heldu nahi genioke, eta hitz biek amankomunean izan dezaketena ikusi. Badugu hurrengo urtean nondik hasi. Urte berri on zeraindar guttiori.

Mikel Zalbide



Xagu-txoko




Babesetik

AZAROA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				1	2	3	4
Euria (l/m)	GUZTIRA : 200L			9,5	0	1,75	8,0
C° altuena	ALTUENA: 20°			16,2	18,0	16,0	13,2
C° baxuena	BAXUENA: 0,5°			9,7	8,0	14,2	11,5
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/m)	5,0	9,5	0	1,25	9,5	9,5	8,5
C° altuena	15,2	12,0	9,6	15,5	17,3	17,9	10,0
C° baxuena	2,8	6,1	2,1	10,4	11,9	10,6	6,0
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	4,0	6,5
C° altuena	11,8	13,0	20,0	19,6	19,0	15,5	13,3
C° baxuena	3,2	0,5	3,3	10,7	12,0	12,0	11,2
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/m)	0	3,0	5,5	0	0	4,0	9,0
C° altuena	13,0	16,2	13,5	13,5	14,9	15,0	13,4
C° baxuena	5,3	4,4	9,9	2,1	8,6	10,4	10,0
	26	27	28	29	30		
Euria (l/m)	4,50	20,5	51,0	22,5	7,0		
C° altuena	12,5	7,4	6,3	5,7	6,0		
C° baxuena	9,0	4,3	4,6	3,8	3,0		

la atertu ere egin gabe

2012a ez da bereziki urte euritsua izan urte guztiko prezipitazioak kontuan hartuz gero. Udaberriaren lehen zatia eta uda nahiko lehorrak joan ziren; baita udazkenaren lehen partea ere; baina hasi bazuen hasi, urria eta azaroa euritan pasa genituen. Azaroan guztira 200 litroa iritsi zen eta azken astean bakarrik 80 litrotik gora egin zituen. Hala ere, hotz handirik ez eta elurra mendietan bakarrik ikusi genuen.



	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Urtarrila	45	283	223,5	121,5	91	139	104,75	239	234,5	47,75	96
Otsaila	170,25	152	145	164,5	89	152,5	30	169	98,75	167,5	88
Martxoa	40,5	69,25	120,25	96	193,25	320	311,5	127,25	79,25	121	79,5
Apirila	100	79	132	236,5	74	130	173	166,5	48,5	70,5	202
Maiatza	171	116	82	86,5	31	114	171	80,75	132,25	125	116
Ekaina	84,75	55	22,25	15,25	90,75	52	137	51,25	155,5	83,25	49
Uztaila	61,25	15,75	44,5	9	29	36	17	20,25	14,5	89	26
Abuztua	126,25	37,5	60,5	87	32,25	120,75	72,2	28	35,5	44	23
Iraila	42	76,5	133,5	68	130	66,5	32,85	135,5	51	39	100,5
Urria	120	207	83	98,5	99	123,5	151	86,25	126	50,75	190
Azaroa	178,75	180,5	175,5	312	117,5	49,25	268	326,25	240	199,75	200
Abendua	314,5	211	223	174,25	97,75	93,5	235,75	115,5	129,25	191,5	158
GUZTIRA	1454,25	1482,5	1445	1469	1074,5	1397	1704,05	1545,5	1345	1229	1328

San Blas eguna eta Santa Ageda bezpera



Otsailaren hasiera, urteroko moduan San Blas eta Santa Ageda bezpera ospatuz hasiko ditugu herrian. San Blas egunez, otsailaren 3an, meza eta janari bedeinkapena egingo dira San Blas ermitan, goizeko 10:45ean. Ondoren hamaiketako emango da soziedadean. Hurrengo egunean, Santa Ageda bezperan, kantuan eta eskean ibiliko gara etxez etxe, arratsaldeko 3:30etan plazaetik irtenda. Aurten bildutako dirua Caritasentzat izango da.

Tute eta mus txapelketak soziedadean

Urtarrilaren 26an tute txapelketa jokatuko da soziedadean. Handiak 15 egunera, otsailaren 9an, musekoa jokatuko da. Bi lehiaketak arratsaldeko 4etan hasiko dira eta sari bikainak egongo dira batean zein bestean.

Photoshop ikastaroa

Kultur etxeak Photoshop ikastaroa antolatzeke asmoa du, horretarako nahikoa jende apuntatzen bada. Asmoa elkarrekin photoshopen oinarritzko erabilera ikastea da. Interesatuak izena eman dezatela udalletxean otsailaren 14a baino lehen.